

Estadoaren eta Elizaren arteko borroka 1900 inguruan: fraide batzuen ihardespenak Belokeko fraidetxean



Père Marc **Doucet***

1903-an, frantses gobernuak, delako "Associations" eta erlisione kongregazioeri buruzko 1901eko legea, aplikatzen zuen. Belokeko fraide gehienek onhartu zuten, bortxaz, Frantziatik joaitea. Bainan ez denek...

Giltza-Hitzak: Erligio kongregazio. Estadoaren eta Elizaren behextea. 1901, 1903 eta 1905-eko legeak.

En 1903, lors de l'application de la loi de 1901 sur les Associations et les congrégations religieuses, par le gouvernement français, la plupart des moines de Belloc se résigna à l'exil. Mais pas tous...

Mots Clé : Congrégation religieuse. Séparation de l'Eglise et de l'Etat. Lois de 1901, 1903, et 1905.

En 1903, cuando la aplicación de la ley de 1901 sobre las Asociaciones y las congregaciones religiosas, por el gobierno francés, la mayoría de los monjes de Belloc se resignó al exilio. Pero no todos...

Palabras Clave: Congregación religiosa. Separación de la Iglesia y del Estado. Leyes de 1901, 1903 y 1905.

* Abbaye de Belloc. Frères Bénédictins. F-64240 Ahurti / Urt.

1901-eko legeari obeditzeko, beren etxean bizitzeko baimena behar zuten gobernuari galdegin erlazio kongregazio guzietan. Ahurtiko auzapeza eta kontseiluak baimen horren alde izan ziren¹. Gero, Probintzia frantsesaren ize-nean, baimena frantses gobernuari galdegin zion Pierre-Qui-Vire-ko Abadeak, 1901eko, irailearen 23an. Bainan, 1903an, martxoaren 24an, Lege biltzarrak baimen hori errefusatu zuen. Salbu bost edo sei erlazio kongregazio, beste guziaz, Beloke barne, legez kanpo ziren.

1903ko apirilaren 18an, Bazko larunbatean, Poliziak Belokeko Beneditarrei jakinarazten zuen hesteko manua; 15 egun eman zitzaizkien fraideeri komentutik kanporatzeko. Fraideak, Frantziatik joan beharrak ziren. Gora-behera horiek aurkeztu ginituen, ihardunaldi batean, Baionan, joan den urteko abendoan. Apirilaren 31an eta maiatzaren 1ean, kasik fraide guziaz Beloketik Españari buruz joanak ziren. Kasik guziaz, bainan ez guziaz. Zeren eta, beste molde batez ihardoki zuten fraide batzuk, bereziki hiruk. Nor ziren hiru fraide horiek? Zergatik bestela ihardoki zuten? Eta nola? Eta zeri buruz? Eta zer ondoriorekin azkenik? Hori nahi nuke aurkeztu, hemen.

1. AITA IGNACE GRACY-REN IHARDOKITZEKO MOLDEA: MISIONEA LEHEN

Frantziatik kanporatuak izanen zirela fraideak, ikusten zuten fraide gutiz gehienek, Beloken. Argi ta garbi hori ikusten zuen fraide batek: Aita Ignace Gracy-k, Askaindarra, Belokeko nobizioen erakaslea orduan. Egun batez gure probintziaren buruzagiak, Erromako Abade nagusiari idatzi zuen:

A Belloc, ils semblent tout en l'air, et prennent des décisions avec une rapidité surprenante. Don Ignace Gracy, maître des novices, voyant que personne ne se dévouait pour aller dans la République Argentine, s'est offert d'y aller lui-même et hier j'apprenais qu'il était parti avec clercs, novices et frères convers. (...) aujourd'hui, je reçois quelques lignes qu'il m'écrivit au moment de quitter :

D'aucun pourrait penser que j'étais utile encore par ici. Mais il semble que si l'on veut envoyer du renfort à Niño-Dios je sois nécessaire à l'expédition. Du reste, le temps n'est plus aux réflexions et aux combinaisons. Quand vous aurez reçu cette lettre, je serai déjà parti...².

Eta Abade probintzialak aitzina:

C'est y aller un peu cavalièrement, mais soit! les circonstances peuvent excuser des procédés très critiquables en d'autres temps !³.

1. Ahurti-ko kontseilua alde izan zen, 1901-eko hazilaren 10-eko biltzarrean. Herriko kontseiluan ziren fraideek, ez zuten bozkatu. Bozak, alde: 5; kontra: 0; bozkatu bainan ez trenkatu: 4. Kontseilua alde izan zen ere, Serora Beneditarren alde, 1901-eko abendoaren 2-ko biltzarrean; bozak alde: 8; kontra: 0. Ahurti-ko artxiboak.

2. 1903-ko otsailaren 2-an: « *Saint Benoît sur Loire, le 2 février 1903 ...* » A. Léandre, frantses bisitadorea D. Maur SERAFINI-ri Abade nagusiari - APQV-Corresp. div.

3. 1903-ko otsailaren 2-an = « *Saint Benoît sur Loire, le 2 février 1903 - ...* », A. Léandre, frantses bisitadorea D. Maur SERAFINI, Abade nagusiari - APQV-Corresp. div.

Aita Ignace Gracy-rekin, Niño-Dios-eko komenturat joan ziren, 1903-ko otsailaren 28-an, beste bederatzita fraide gazte⁴. Pertsekuzioa aitzin eta pertsekuzioaren aitzinean, hautua egin zuen Aita Gracy-k, eta Evanjelio-ko manamendua praktikan eman: “Gaizki erabiltzen bazaituzte, ihes egin beste (herri) baterat” (Mat.).

2. AITA FULGENCE BETBEDER-REN IHARDOKITZEKO MOLDEA: INDARRA, LEGEAREN KONTRA, INDARGABEA

Baiones etxean, orain Serora Beneditarren arrotz-etxean sortu zen A. Fulgence Betbeder, Ahurtiarra, Belokeko familia auzo eta adixkide batean. Nola-koa zen A. Fulgence, erraiten dauku garai hartako beste Belokeko fraide batek, Aita Anicet Goicoetchea-k, bere *Oroitzapenetan*:

Au physique, le P. Fulgence avait le type alsacien ou allemand comme son nom : grand, blond, sanguin, herculéen (...). Peu enclin à la mystique et aux travaux littéraires, intellectuels ou métaphysiques, né pour l'action et surtout l'action des arts et métiers. Un vrai brasseur d'affaires matérielles, tour à tour minotier, autant qu'architecte, charron, mécanicien, dans ses heures aide maçon, menuisier et parfois travaillant comme un simple ouvrier qui n'était pas à dédaigner parce qu'il portait 100 kgs sur le dos sans broncher. Il n'avait rien d'un fainéant, toujours actif, sauf dans les rares moments de sa vie contemplative qu'il ne pouvait prolonger outre mesure. Il fallait qu'il eût devant lui de l'ouvrage⁵.

Aita Bastresekin, Belokeko komentu kasik guzia Beloketik joan zen, maiatzaren 1an. Aldiz, Aita Fulgence Betbeder Beloken egon nahi izan zuen bizpahiru fraidekin: Aita Anicet Goicoetchea-rekin et Aita Marie-Joseph Laborde-ekin. Arte hartan, Polizak barrandan zauden eta ohartu ziren; eta egun batez, gure hiru fraideak Baionako epailearen aitzinerat eremanak izan ziren, galdeketa bat egiteko. Azkenean, hiruetarik bik muga zalukara pasatu zuten; baina bat egon zen: Aita Fulgence Betbeder. Belokeko eihera beti ari zen eta A. Fulgence lanean ari zen langileekin. Lecouturier, liquidateur-ak, Estadoaren izenean, zigiluak eman arazi zituen eiheran; baina Aita Fulgence Betbeder-ek auzitarat jaukitu zuen; debaldetan.

1903-eko ekainaren 24-ean, (Jondoni Batista-kari), Aita Michelek bere *Ordoan* idatzi zuen: *J'attends les gendarmes*⁶. Biharamunean, ekainaren 25ean, goizeko 8 orenetan, lege-gizonak, jandarma andana bat lagun, etorri ziren zigiluen ezartzera; Belokeko auzo asko han zauden, hain xuxen karia hortarat etorriak. Huna zer zion txosten ofizialak:

4. Laikoak dira: Joachim JACOULET, Félix DOSBA, Benoît IBARROLABURU, Bernard DAGUERRE, Salvador LABORDE, Marcellin DE LASA. Aitak ziren: Célestin FOURCADE, Germain MARRASAA, Thomas LAMARQUE, Fr. Marcellin DE LASA.

5. A. Anicet GOIKOETCHEA, *Souvenirs* (manuscrit) p. 58 – 9. ABL.

6. *Ordo* de P. Michel CAILLAVA.

... A notre arrivée sur les lieux avec le requérant, nous y trouvâmes réunis une soixantaine d'individus ayant un air menaçant, venus là sans doute, pour empêcher leur apposition et opposèrent en effet une vive résistance à trois gendarmes de la brigade de Bidache, que nous avons amenés avec nous pour le réaliser. Nous trouvant si inférieurs en nombre, nous crûmes prudent de renvoyer au lendemain, où des renforts, que nous allions demander, allaient nous arriver et nous permettraient d'avoir facilement raison des manifestants ...⁷.

Biharamunean 26an, Belokeko eiherarat berriz etorri ziren jandarmak. 27an, Baionako prokuradoreak, Paeko prokuradore nagusiari gertakariari berri eman zion:

Nous nous sommes transportés au moulin de Belloc, le Sous-préfet, le Juge d'Instruction, le capitaine de Gendarmerie et moi, hier 26 juin à 8 heures du matin – 70 gendarmes, 48 à pied, 22 à cheval nous ont rejoints bientôt après. (...) Le magistrat a apposé les scellés sur le moulin et sur les portes extérieures. Pendant cette opération, une centaine de personnes s'étaient formées en deux groupes à quelque distance, attentives et muettes.

Le 25, une foule menaçante avait empêché le Juge de Paix et le liquidateur de remplir leurs fonctions. Le 26, la population s'est abstenu de toute manifestation sur un mot d'ordre, vigoureusement obéi, des Bénédictins rendus circonspects par la présence des autorités et des sérieuses mesures qu'ils avaient prises (...)⁸.

Aita Michel Caillava-k bere *Agendan*, ekainaren 26-an, idazten zuen: « *journée triomphale* » eta artikulu luze batzuetan, ixtorioa kondatzen zuen Baionako prentxak. Afera ez zen hortan gelditu eta ondoko urtean, 1904-ean, Aita Fulgence Betbeder auzitegiat eremana izan zen, kongregazio debekatua berriz sorrarazi nahiz, akusatutik. Kondenatua izan zen 25 liberaren pagatzerara. Ez zuela pagatuko! Baionako presontegiari ereman zuten jandarmek, eta han egon zen hilabete batez, otsailaren 15-etik martxoaren 20-erata⁹. Arrazoi berarekin eta presondegi berean, preso egon zen ere Aita Tapie, Dominikarra, Miarritzeko fraidetearen burua¹⁰. Aita Fulgence, presontegitik ateratu-eta, Idiazabalerat joan zen, Belokeko fraideak ziren lekurat, Gipuzkoan, eta geroxago, handik Jerusalem-erata.

7. ADPA U 8/5, 25 – 1903-ko ekaina.

8. ADPA 2 U 26; Me CELHABE-n jukumendua: minute n° 217, ADPA 3 U 1 – 1143. Badira bi txosten ekainaren 25-ean eta 26-an gertakariari buruz, Philippeau-k, Jandarmen kapitainak eginak.

9. *Répertoire des établissements pénitentiaires*, Baionako presontegia, ADPA 2Y 1/40* (1903-1909 urteak). Gertakari horri buruz, ikus *Annales catholiques du diocèse de Bayonne* 51 (22 avril 1906) pp. 822-35. *Ephemerides Congregationis cassinensis a prim. observ. Ordinis S. Benedicti* arabera (1905eko urtarrile-tik – 1912-ko uztaillarat) p.2 eta 6, etxeratu zen martxoaren 20ean.

10. Kondenatua izan zen isuna pagatu ez zuelakotz. Ikus *Annales catholiques du diocèse de Bayonne* 51 (22 avril 1906) pp. 822-35. Libratua izan zen, iduriz, kongregazio guzietako fraide eta serorak bezala. Auzitegiari eremanak izan zirenak 1901-eko uztaillaren 1-eko legea hautsi zutelakoan. Dossier n° 177, 1903, ADPA 3 U 1 / 1143.

Estado zapatzailearen kontra ihardoki zuen bere gisan fraideak, baina Estadoak pagara zi on eta kario pagatu zuen Aita Fulgence-k!

3. AITA MICHEL CAILLAVA-REN IHARDOKITZEKO MOLDEA: IZPIRITU XORROTXA ETA TEMATSUA

Belokeko beste fraide bat ere ez zen Españarat joan: Aita Michel Caillava, Bastidan sortua 1849eko otsailaren 5ean, apeztua 1874eko maiatzaren 30ean, eta Beloken sartua 1877ko maiatzean.

Luzaz aitzinetik, gertatu beharra zena asmatu zuen. 1900 inguruan, sekularizatzea galdatu eta ukan zuen, erran nahi baita ez zela gehiago fraide, baina diosesako apez.

1899etik, Pau-eko *Institut N-D des Champs* delakoan, Belokeri zatxikola, komentu ttipi bat bazen. Beti jo hunat, jo harat, baina beharria xut, orenaren beha zagon. Belokeko fraideen kanporatze ondoan (apirilaren 31an eta maiatzaren 1-ean), Belokerat joan zen martxoaren 23an, ikusteko. Arbelbide apezarekin, Ahurtin atzema, etorri zen. Egun hortan, bere *Ordo*-an idazten zuen Aita Caillavak: *Dévastation, désolation*. Ondoko hilabetean, maiatzaren 8an, Beloken kokatzen ziren hura bera eta haren arreba, Lafourcade anderea, Bastidarra. Hori, frantses gobernuari erakusteko argi ta garbi, Belokeren jabea hura zela, Aita Caillava. Hilabete haren 8an, idazten zuen: « Je m'installe à l'abbaye ; dit la messe chez les Sœurs »¹¹; 9an, 16an eta 17an, idazten zuen beti bere *Ordo*-an: « Messe à l'abbaye ». Ekainaren 6an, Errepublikako Procuradorearen txosten batean, irakurtzen ahal zen:

Le 6 juin suivant, le commissaire spécial constatait la présence dans le monastère d'un autre Bénédictin, le père Caillava. Une instruction était requise contre lui le 11 juin [1903] ...¹².

Aita Michel Beloketik kanporatua izan ote zen? Ez dezakegu segurki baietz erran. Arte hartan, Estadoa auzitegirat ereman zuen gure kongregazioak; beriz diot: Estadoa auzitegirat ereman zuen gure kongregazioak eta ez Estadoak gure kongregazioa! Nihundik ere, ez zirela komentua eta haren lurrak salzera utzi behar, Avalloneko notario batek, Me Amoudru, kongregazioaren interesak, *Société civile* izenpean, auzitegiaren aitzinean zaintzen zituen. Baina ilusionerik batere gabe. *Société civile* hori, kongregazioaren izenean, lege mailan, sobera berant eraikia izan zen: 1877eko urriaren 4ean. Delako *Société civile* hori ez zen funtseskoa, holako bertze *Sociétés civiles* gutiz gehienak bezala. Urte baten buruan, Amoudru abokatak La Pierre-Qui-Vire-ko Abadeari, gutun bat igorri zion:

11. *Ordo* 1903-ko maiatzaren ortzirale 8-an.

12. ADPA: 2U 26 = FABRE, Errepublikako Procuradorearen txostena, Pau-eko Procuradore nagusiari, 1904eko uztailaren 5-ean.

Doucet, P.M.: Estadoaren eta Elizaren arteko borrokak 1900 inguruan: fraide batzuen...

Avallon le 11 mai 1904, (...) Le tribunal a adopté la thèse du liquidateur, comme je le prévoyais trop. Il déclare la Société civile personne interposée. La Pierre-qui-Vire et Kerbénéat sont donc perdus ¹³.

Bainan, auzi berean, Belokeri buruz, epaileak ez zuen oraino trenkatzen. Amoudru Avalloneko notarioak bere gutunean zion:

Pour Bellocq, la revendication subsidiaire de M.M. Arbelbide et Caillava est accueillie sous la réserve par eux de payer les plus values à déterminer par experts (...) ¹⁴.

Arte hartan, deputatuen ganbaran, 1901eko kongregazioeri buruzko legeari, hobetze bat bozkatu zuten deputatuek: etxearen jabea zena, etxea komentu bilakatu aitzin, berriz etxeaz jabetutuko zuela, nahi bazuen. Frogak ekarri behar ziren, bixtan da, epaile baten aitzinean. Denborarik galdu gabe, bere bost ahalak egin zituen Aita Michelek Beloke bereganatzeko. Eta berriz auzitegirat ereman zuen Estadoa Aita Michel Caillavak. Eta irabazi. Bainan, Estadoaren izenean, Le Couturier, « liquidateur » delakoak, dei egin zuen « plus-values » delakoengatik. 1905eko, hazilaren 12an Aita Bisitatzailari, Pauetik Aita Callava-k idazten zuen:

(...)Vous savez que Lecouturier a fait appel sur les 40.000 F. Il y avait donc à combiner. (...) finalement, quoique avec peine, j'ai consenti parce que d'après eux [les avocats] c'est le seul moyen de conserver cette pauvre Abbaye. Elle sera grevée d'hypothèque pour au moins la moitié de sa valeur. Et encore nous appar-tiendra-t-elle ? ¹⁵.

Azkenean, urte baten buruan, auzitegiak aitortzen du Aita Michel Cailla-va, etxearen - erran nahi baita, Belokeren - jabea dela. 1905eko, urtarilaren 27tik, Arbelbide apezka hil zen egunetik, jabe bakarra zen Aita Michel Caillava. Berehala, arrebari, Bastidan bizi zenari, auzitikako berri ona idazten dio Caillavak:

Vitailles, ce 5 avril 1906 (...) Je vous annonce comme à notre meilleure amie la bonne nouvelle du gain de mon procès à Paris que je reçois à l'instant. Il peut faire appel encore. Ne crions pas notre victoire ¹⁶.

Lau auzi horien denbora berean, bat bestearen ondotik, Francis Jammes Hazparneko olerkariarekin, adixkidetu zen Aita Caillava. Jammes-ek Aita Michel-i Paul Claudel ezagutarazi zion. Gaur egun, Bastidan, Notre-Dame karrikan, elizatik 50 metretan, David etxearen muruari datxikola, harlauza bat ikusten ahal da. Jammes hor kofesatu zela eta kominionea ukan zuela oroi-tarazten daukuna, eta noiz, Jammes-en pertsu batzurrekin:

13. Me AMOUDRU-ren gutuna 1904-eko maiatzaren 11an. ABL 3 F-2.

14. Me AMOUDRU-ren gutuna 1904eko maiatzaren 11an. ABL 3 F-2.

15. ABL 3 A. 3.

16. ABL 3 A 3.

Un calme, que je n'avais jamais connu, règne dans mon cœur depuis le 7 juillet, jour où, à Labastide-Clairence, village perdu dans la clarté, j'ai reçu la communion du P. Michel. Claudel a également communiqué et il a servi la messe dans une petite chambre convertie en chapelle. Le Père avait revêtu sa chasuble bénédictine, belle comme l'été. Mon cœur était comme un verger de la Saint-Jean¹⁷.

Paul Claudel berettier: mintzaldi batean, 1939-ko urtarrila-ren 1ean, Claudel-ek kondatzen zuen nola Jainkoak bereganatu zuen, 1905-eko uztari-laren 7an:

Et c'était moi qui servais la messe où le faune agenouillé reçut de la main d'un père bénédictin l'azyme de réconciliation¹⁸.

Aldi bat baino gehiagotan, kondatu zuen Francis Jammes-ek nola Jainkoaganatu zen¹⁹. Urte hartan (1906), abuztuaren 23an, auzia aldebat irabazi zuen Aita Caillavak. Handik goiti, Belokeko lurra eta etxea jabe gisa zaintzen zituen eta, gutunak beti izenpetzen zituen: « Michel Caillava, propriétaire de Belloc ».

Mugerren, laborantza eta umezurtz-etxea ttipi bat bazituen Belokek: orphelinat agricole St Isidore. 1903tik, utzi zuten Belokeko fraideek eta Ahur-tiko Serora Beneditarrek zaintzen zuten, Diharce apez buru. 1905eko, abuztuaren 10ean, denak, apez eta serorak, kanporatuak izan ziren. Diosesako aldizkariak zion:

La scène de séparation entre les enfants et les Sœurs qui les soignaient, a été déchirante. L'indignation est générale contre les misérables qui détruisent ainsi une oeuvre de bienfaisance²⁰.

17. Correspondance F. Jammes A. Fontaine, Correspondance 1898-1930. Introduction et notes par Jean LABBÉ, éd. NRF, Gallimard 1959, p. 87; ikus ere J.-P. INDA, *Francis Jammes par delà les poses et les images d'Epinal*, éd. Mairimpoye Jeune, Coll. Béarn Adour, publiée sous la direction de la Société des Sciences, Lettres et Arts de Pau, Pau 1975.

18. Francis JAMMES-eri buruzko mintzaldi batean, Paul CLAUDEL-ek emanik, 1939-eko urtarrilaren 1-ean; ikus P. CLAUDEL, *Oeuvres en prose*, NRF bibliothèque de La Pléiade, éd. Gallimard, 1965, p. 548. Bertze oroitzen bat orrialde batzuek: « Qu'est-ce que le P. Michel de [sic] Caillava a à lui ouvrir, à lui montrer ? Qu'est-ce qu'il a à demander à ce premier communicant barbu d'accepter ? Un père, une mère, des frères, des sœurs, du pain, du vin, de l'huile, de l'eau du feu. Mais du pain qui est vraiment du pain et qui nourrit, du vin vraiment qui enivre, du feu vraiment qui brûle, de l'eau qui vraiment désaltère et qui nettoie, un père vraiment qui est père, et qui ne comporte pas de déceptions et de trahisons. Un consentement qui est donné une fois pour toutes, un homme qui accepte de se prendre au sérieux et de prendre ses frères au sérieux, un amour qui est devenu un sacrement » p. 558.

19. Ikus *La revue de la jeunesse* (25 octobre 1913) 92-3: *Ma conversion*. Ikus ere P. CLAUDEL, *Mémoires*, p. 293 bai eta ere *Correspondance F. Jammes - A. Fontaine*, p. 87, déjà cité, eta Francis JAMMES, *Le livre de saint Joseph*, éd. Plon, Paris 1921, Michel kapitulua, p. 42-3.

Jammes-en bihotzberitzearen oroitzenetan, 1905-eko uztailaren 7-an, jardunaldi bat antolatua izan da Orthez-en, 2005-eko maiatzaren 13-14-etan. Txostenak agertzeoak dira.

20. *Annales catholiques du diocèse de Bayonne* (1ere année) 1 (dim 13 août 1905) p. 227.

Zenbat muttiko –edo nexka– eskola hetsiak izan ziren! Etxe bat xutik zagon, idekirik oraino bainan bere aldiaren beha zagona: Larresoroko Seminario ttipia. Etxe-hestea eta kanporatzea ez zitazken biziki urrun. Gazte batek, Pierre Fourcadek, laugarrenean zena, aitameri idazten zioten:

Larressore, le 6-12-1906 – (...)Ici, on ne parle que de la fermeture. Cela met les esprits en effervescence. Il paraît qu'elle aura lieu sûrement du 11 au 16²¹.

Zonbeit egunen buruan, 1906eko abendoaren 12an, hesteko manua etorri zen:

Le mercredi soir 12 décembre 1906, le commissaire de Police de Biarritz, CLERCH, déposa chez le portier du Petit Séminaire un ordre pour que la maison fût évacuée le vendredi: on accordait 24 heures de délai à 160 petits Français pour s'enfuir sur le chemin sans avoir eu le temps d'avertir leurs familles²².

300 laborari etorri ziren tenoreko, egun hartan. Orduan, beti bezala hola-koetan, zorigaitzez: polizak, indar publikoa, manuak, protestaldiak, etxearen atea hautsiak, lekukoak harrituak eta izituak:

Le vendredi, Larressore n'offrait plus que l'image de la désolation (...) on installa 2 gardes dans ce nouveau sépulcre²³.

Seminario ttipian egon ziren erakasleak. Bainan haizatuak izan ziren *manu militari* abendoaren 19an. Baionako apezgaiak Nay-eko Dominikar Seroren komentu ohirat igorriak izan ziren; Oloroneko Seminario ttipia, Nay-eko colegio batetarat joan zen eta Larresoroko apezgai ttipiak Belokerat igorriak izan ziren. Seminario ttipiko historialariak dio: « La Providence offrit un abri inespéré au monastère des Bénédictins de Belloc... »²⁴. « Providence » delakoaren tresna, A. Michel Caillava izan zen. Auzien ondotik, Beloke bereganatu-eta, A. Michelek, Mgr. Gieure apezpikuari berehala Beloke eskaini zion. A. Michelen paper zaharretan irakurtzen dugu: “Jeudi 29 novembre 1906 – Vu l'évêque : lui ai offert Belloc » eta 1906eko abendoaren 1ean larunbata: « Eté à Belloc. Trouvé P. Marot et P. Fulgence ». A. Joseph Marot, Heletarra, Belokeko Piora zen eta A. Fulgence, ekonomo izana zen. Hiruak batean elgar solastatu zuketan dudarik gabe A. Michelen xedeari buruz.

1907eko urtarilaren 3an, meza saildua emaiten zuen A. Michelek Beloken, eta bost egunen buruan, urtarilaren 8an, bere paperetan, idazten zuen:

21. Pierre FOURCADE-n gutuna aitameri. Orduan, 1906-an, laugarrenean zen, Larresoroko Seminario ttipian. *Lettres de Pierre Fourcade, de 1906 à 1912*, Claude semeak adixkide gisa ezagut araziak A. Marc Belokekoari.

22. Jean SAINT-PIERRE, *Un maître éducateur, Arnaud Abbadie, Supérieur du Petit Séminaire de Larressore*, Bayonne, imprimerie du « Courrier » 9 rue Jacques Laffitte, 1928, p. 30.

23. Jean SAINT-PIERRE, *Un maître éducateur ...*, p. 31-2.

24. Jean SAINT-PIERRE, *Un maître éducateur ...*, p. 32.

« Le St Sacrement de nouveau installé à Bel-loc par Mr Abbadie »²⁵. Belokeko seminario berrian, ikasle eta erakasleek Fraideen tokia hartu zuten. Bizi berriari emeki bada emeki jarri ziren. Zailak izan ziren denentzat hastapenak, ikasleen eskutitzen arabera: eskola, erakasleak, lagunak, janaria..., eta, oroz gainetik - Beloke zaharreko fraide guziak oroit dira - hotza.

Seminario ttipia Belokerat etorri zen lehen urtearen buruan, Larresoro-Belokeko adixkideek eta ikasle ohiek, biltzar bat egin zuten:

...19 juin 1906(...) C'est avec un sentiment de particulière gratitude que nous saluons l'un d'entre eux [d'entre les Bénédictins] présent à la réunion – le Père Michel [Caillava] – qui, après de longs et dispendieux procès, n'a pas plus tôt réussi à faire reconnaître ses droits de propriétaire sur Bel-loc, qu'il l'a mis à la disposition de Mgr l'Evêque pour servir à ses desseins en une heure difficile²⁶.

Bere gisan, bere izpiritu xorrotx eta tematsuaekin, tokian tokiko gisa, ihardoki zuen Aita Michel Caillavak; ihardoki eta irabazi. Seminario ttipi bilakatzen zen Beloke, Fraide-etxe berriz bilakatu aitzin.

Azken hitz. Eta orain, hitz bat bururatzeko:

Hiru ihardokitze horiek erakusten daukute, naski, zer izan ziren, duela ehun urte, Estadoaren eta Erlisio kongregazioen arteko gatazkak. Ahantziak izanik ere orain, balio zuen oroitaraztea mendeburukari.

Milesker *Eusko-Ikaskuntza!*

25. A. Michel CAILLAVA-ren *Ordoa*, 1907ko urtarrilaren 3an eta 8an.

26. *Bulletin de l'Association des Anciens Elèves. Larressore – Belloc – Ustaritz* (1994-1995) p. 8-9.